



ARGIBIDE ORRIA

LEHEN PROBAREN A ZATIA (ARIKETA PRAKTIKOA)

Arretaz irakurri ondorengo azalpenak. Garrantzitsuak dira oso proba behar bezala egin ahal izateko.

EZ IDATZI EZER ERE, HASTEKO BAIMENA MEGAFONIAK ADIERAZI ARTE

1. Deialdiko oinarrien arabera, izangaiek aukeratutako espezialitateari dagokion prestakuntza zientifikoa, trebetasun teknikoak eta gaitasun didaktiko-pedagogikoa dituztela frogatzea da proba praktikoaren helburua.
2. Ikus ezazu ondorengo **materialak** badituzun:
 - ✓ Kartazal handi bat
 - ✓ Kartazal txiki bat
 - ✓ Identifikatzeko txartel bat
 - ✓ Azterketa-orriakHorietako ezer falta bazaizu, epaimahaikideei eskatu.
3. Orain egingo duzun azterketa, **egilea nor den jakin gabe zuzenduko da**, eta hori dela eta, oso garrantzitsua da erantzuteko orrietan zure berri emango duen daturik ez jartzea: izena, nortasun agiriaren zenbakia, izenpea... arau hori betetzen ez baduzu, ariketa baliorik gabe utziko da.
4. Megafoniatik adierazten dugunean soilik, bete itzazu **identifikazio-txarteleko datuak**: lanpostua (ESPEZIALITATEA), izena eta bi abizenak (OFIZIALAK) eta NANA. Ez idatzi ezer ere orriaren goiko eskuin aldean ageri den laukian (zenbakia jartzen duen lekuan). Txartela izenpetu eta kartazal txikian sartu. Kartazal txikia itxi, eta handiaren barruan sartu; handia zabalik utzi behar duzu.
5. Eman dizkizuten **erantzun-orrietan** egindako ariketak baino ez dira hartuko kontuan. **Saia zaitez argi eta garbi idazten. Orriaren alde biak erabil itzazu idazteko**. Orri gehiago behar badituzu, epaimahaikideei eskatu. Ez ahaztu: orri bakoitzak bere zenbakia izan behar du, eta ariketa amaitu ondoren, jar ezazu —lehenengo orriaren laukian— zenbat orri dituen zure azterketak. Ez izenpetu eta ez jarri inolako identifikazio-markarik zure azterketan. Proba amaitu eta gero, besoa jaso; epaimahaiko kideren bat joango da zuregana, eta pertsona hori zurekin dagoela, zure azterketaren orri guztiak kartazal handian sartu, itxi eta epaimahaiko kide horri eman.
6. Azterketa egin ala ez egin, denok entregatu behar duzue kartazal handia eta, barruan, identifikazio-txartela duen kartazal txikia, azterketa orriak hutsik badaude ere.
7. Lehen probaren A zatia **iraupena: 2 ordu**.
8. Azterketaren **lehen 15 minutuetan** zehar inor **ezin izango da azterketa-gunetik atera**. Ez eta gehieneko denbora amaitu baino lehenago **azken 15 minutuetan** ere (mahaitik altxatzeko eta irtetzeko baimena megafoniatik eman arte).

LEHEN PROBAREN B ZATIA (GAIA)

Lehen probaren B zatia egiteko, A zatia inguruan goian adierazitako jarraibide guztiak ere bete behar dituzu.

9. Ikus ezazu ondorengo **materialak** badituzun:
 - ✓ Kartazal handi bat
 - ✓ Kartazal txiki bat
 - ✓ Identifikatzeko txartel bat
 - ✓ Azterketa-orriak
 - ✓ Espezialitateari buruzko gaitegiaHorietako ezer falta bazaizu, epaimahaikideei eskatu.

10. Deialdiaren oinarrietan esaten denaz bat, proba hasi baino zertxobait lehenago **zozketa** bidez **4 gai** aukeratuko dira espezialitateetako gai-zerrenda ofizialetik, eta zuk horietako **bat** garatu beharko duzu. Zuk aukeratutako gaiaren **zenbakia eta izenburua** letra handiz idatzi lehen erantzun-orrian, azterketaren hasieran.

Gai Kopurua	Espezialitatea	Argibideak
75	Fisika eta Kimika	Zozketan ateratzen diren lehenengo 4 gaietatik bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
	Biologia eta y Geologia	
	Euskara eta Literatura	
	Fabrikazio Mekanikoko Antolakuntza eta Proiektuak	
	Enpresen Administrazioa	
74	Informatika	Zozketan ateratzen diren 74a arteko lehenengo 4 gaietatik (74a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
	Energia Sistemen Antolakuntza eta Proiektuak	
73	Analisi eta Kimika Industrialak	Zozketan ateratzen diren 73a arteko lehenengo 4 gaietatik (73a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
72	Geografia eta Historia	Zozketan ateratzen diren 72a arteko lehenengo 4 gaietatik (72a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
	Gaztelania eta Literatura	
	Sistema Elektroteknikoak eta Automatikoak	
	Marrazketa	
71	Matematika	Zozketan ateratzen diren 71a arteko lehenengo 4 gaietatik (71a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
	Ekonomia	
	Filosofia	
	Teknologia	
	Merkataritzako Antolakuntza eta Kudeaketa	
70	Instalazio Elektroteknikoak	Zozketan ateratzen diren 70a arteko lehenengo 4 gaietatik (70a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
	Ekipo Elektronikoak	
	Musika	
69	Ingelesa	Zozketan ateratzen diren 69a arteko lehenengo 4 gaietatik (69a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
	Lanerako Prestakuntza eta Orientabidea	
68	Hezkuntza-Orientazioa	Zozketan ateratzen diren 68a arteko lehenengo 4 gaietatik (68a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
65	Gorputz Hezkuntza	Zozketan ateratzen diren 65a arteko lehenengo 4 gaietatik (65a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.
	Merkataritza Prozesuak	
	Informatika-Sistemak eta Aplikazioak	
61	Administrazio-Kudeaketako Prozesuak	Zozketan ateratzen diren 61a arteko lehenengo 4 gaietatik (61a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko duzu.

11. Lehen probaren B zatia **iraupena: 2 ordu**.
12. Ariketa egiteko denbora osoan zehar, mahai gainean utzi behar duzu zure NANA, ondo ikusteko lekuan, eta isil-isilik egon behar da.
13. Norbaitek ezegoki jokatzen badu, edo beste lagunei kalte edo enbarazu egiten badie, azterketa-lekutik kanpora bidaliko dute epaimahaikideek. Telefono mugikorra aldean baduzu, deskonektatu, erabat itzali, mesedez. Mahai gainean, bertan aurkituko duzun dokumentazioa, zure NANA eta boligrafoak (beltza ala urdina, soilik), ezin duzu besterik izan. **Ezin izango da erlojurik eraman** (azterketa gunean erloju handi bat dago denbora neurtu ahal izateko, eta mahaitik ere iragarriko da noizean behin).
14. Bertaratu izanaren **egiaztagiririk** behar baduzu, azterketa amaitutakoan eskatu, epaimahaikideei.
15. Azterketaren **lehen 15 minutuetan** zehar inor **ezin izango da azterketa-gunetik atera**. Ez eta gehieneko denbora amaitu baino lehenago **azken 15 minutuetan** ere (mahaitik altxatzeko eta irtetzeko baimena megafoniatik eman arte).

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK.